

TREBAKUNTZA 2014/01: ERLATIBOZKO DEN EKIDIN (II)

Erlatibozko perpausen ezaugarri nagusia hauxe da: bi perpaus lotu nahi ditugu bi esaldietan **errepikatzen den hitzaren bitartez**. Batzuetan hitz hori agerikoa da, eta beste batzuetan susma daiteke zein den zentzuari begira. Begiratu adibide honi:

Liburu bat irakurri dut; oso ona iruditu zait.

LIBURU hitza dago bi esaldietan; beraz, erlatibozkoa erabiltzea zuzena da: *Irakurri duduN LIBURUA oso ona iruditu zait.*

Gaztelaniaz asko erabiltzen da erlatibozkoa, eta, agian, horren eraginez euskaraz ere gero eta gehiago erabiltzen hasi gara. Nolanahi ere, argi eduki behar da gaztelaniaz erlatibozkoen bidez esaten dena ez dela euskaraz derrigorrean erlatibozkoaren bidez esan behar.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Itsaso, Oiartzungoa dena, Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*
2. * *Iñaki, jaiotzez azpeitiarra dena baina bihotzez urretxuarra, ez da askotan ibiltzen Azpeitia aldean.*
3. * *Salatua, zeinaren txakurra lotu gabe zebilen kalean, ez zen konturatu umeak eskolatik ateratzeko ordua zela.*
4. * *Hautetsia, zeinaren arreba espetxeratzeko zorian egon ziren ustelkeria kasu batengatik, arrebaren estilo berekoa dela iruditzen zait.*
5. * *Itsubaltzetako Udaleko alkatea den Emilio Gorriaran Urmendarizek dimisioa aurkeztu du arazo pertsonalengatik.*
6. * *Bermeoko arraunlaria den Ander Goierrik adierazi du aurten ez dabiltzala iaz bezain ondo.*

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

7. * *Udalak emango duen esleipena behar den epearen mugen baitan lortzen duen pertsonak errenta aitorpenaren kopia aurkeztu beharko dio udalari.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

1. **Itsaso, Oiarzungoa dena, Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*

Esaldiak gaztelania kutsu handia du: *Itsaso, que es de Oiartzun, trabaja en el Gobierno Vasco.*

“...que es de Oiartzun” esaldiak Itsasori buruzko azalpen bat ematen du. Azalpenezko erlatiboak oso sarri erabiltzen dira gaztelaniaz, eta koma artean joan ohi dira.

Nolanahi ere, euskaraz, bi informazio baditugu, bi esaldi erabili ohi ditugu, “eta” juntagailuarekin lotuta edo zuzenean, “dena” edo antzekoak erabili gabe.

1. *Itsaso, oiartzuarra, Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*
1. *Itsaso oiartzuarra da, eta Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*
1. *Itsaso Oiarzungoa da, eta Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*

Gauza bera gertatzen da 2. esaldiarekin. Erlatiboazko “dena” kenduta, esaldia egokiagoa da:

2. *Iñaki, jaiotzez azpeitiarra baina bihotzez urretxuarra, ez da askotan ibiltzen Azpeitia aldean.*

Euskaraz, “zeina”, “zeinaren” eta halakoak zuzenak diren arren, ez dira batere argiak eta egokiak, eta, gehienetan, esaldiak beste modu batean idatz daitezke:

3. *Txakurra lotu gabe zebilen kalean, eta jabea ez zen konturatu umeak eskolatik ateratzeko ordua zela.*
4. *Arreba espetxeratzeko zorian egon ziren ustelkeria kasu batengatik, eta hautetsia arrebaren estilo berekoa dela iruditzen zait.*

Gauza bera gertatzen da erlatiboazkoak karguekin erabiltzen ditugunean: hobe da erlatiboazkoa erabili baino izen-abizenak eta karguak segidan jartzea.

5. *Emilio Gorriaran Urmendariz Itsubaltzetako Udaleko alkateak dimisioa aurkeztu du arazo pertsonalengatik.*

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

6. Ander Goierri Bermeoko arraunlariak adierazi du aurten ez dabiltzala iaz bezain ondo.

Horrez gain, euskaraz, ez da komeni esaldi berean erlatibozko bat baino gehiago sartzea. Hartara, erlatibozko asko baldintzen bidez eman daitezke:

7. Pertsona batek udalaren esleipena behar den epearen mugen baitan lortzen badu, errenta aitortenaren kopia aurkeztu beharko dio udalari.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99